



KANALAK

Intelligent BT, denda fisikoan eta interneten bitartez eros daiteke. Gure produktua web orri propio bat izango du, informazioa eta laguntza eskuratzeaz gain, txipa erosteko aukera aurkituko dena. Hasiera batean euskal probintzian soilik salduko da, eta arrakasta hartzen duenean Espainia osoan eskuratu ahalko da.

Teknologia dendetan salduko da, eta baita ere Media Mark-en, Fnac-en eta Leroy Merlin-en, adibidez. Denda hauek teknologia ezberdinak saltzen dituzte, eta hara joaten den jendea teknologia edo etxean erreformak egitea bilatzen dute batez ere. Gainera, denda hauek hirien zentroetan egoten dira normalean. Honek gure enpresarako onuragarria izan daiteke, jende askoren eskura egon ditzakelako.

Gure web orriaz gain denda hauen web orrietan ere erostea posible izango da; web orri hauek fidagarriak eta errazak direnez bezeroak eroso sentituko dira bertan erosteko.

Beraz bitarteko kanalak eta kanal zuzenak erabiliko ditugu: interneten bidezkoak eta denda fisikokoak.

Bezeroek gure produktuaren berri izateko hainbat sare sozialetan iragarki txikiak jarriko ditugu (youtube, facebook...), telebistan jartzea baino merkeagoa delako. Hala ere, denbora pasatzean eta diru gehiago lortzen dugunean, telebistan eta denda fisikoetan iragarki handiagoak jartzeko aukera izango dugu.

Media  *Markt*

**LEROY
MERLIN**

fnac